

GARBIKETAN, MUGITZEN, EROSKETAK EGITEN... LAGUN DIEZAZUN NORBAIT KONTRATATZEKO LAGUNTZA PERTSONALAREN PRESTAZIO EKONOMIKOA (LPPE)

Garrantzitsua

Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

Adingabea -18 desgaitasunarekin > Diru-laguntzak

Fitxa laburtua kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio osoa.](#)

Norentzat

Mendekotasun-egoeran dauden pertsonak (I., II. edo III. graduak).

Zenbatekoa

Aldakorra, baldintza pertsonalen arabera.

12 ordainsari urtean.

Baldintzak

Mendekotasuna onartuta izatea.

Laguntza behar izatea eta horiek zehazteko gaitasuna

Erroldatzea.

Zertan datza?

Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoa (LPPE) laguntza ekonomiko bat da, aldizkakoa, mendekotasuna duten pertsonen autonomia erraztuko duten laguntzaile pertsonalak kontratatzen laguntzeko, hezkuntzara eta/edo lanera sartu ahal izateko, komunitatean integratu eta parte hartu ahal izateko, eta eguneroko bizitzako oinarritzako jardueretan autonomia handiagoa lortzeko ([3.1.1](#)

[fitxa](#)).

Norentzat?

3 urte edo gehiagoko **mendekotasuna** duten pertsonak (I., II. edo III. graduak).

Zenbatekoa da?

Urtean 12 ordainsari ordaintzen dira, eta pertsona bakoitzarentzat kalkulatzen da jasotzen den zenbatekoa, honako hauek kontuan hartuta: mendekotasun maila, mendekotasuna duen pertsonaren egoera ekonomikoa, beste zerbitzu batzuk erabiltzea, antzeko laguntzak kobratzea edo kontratazioaren kostua.

Bateragarria al da beste laguntza batzuekin?

LPPE **ez da bateragarria** SAAD Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren beste laguntza ekonomiko batzuekin (Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoa izan ezik, egoitza bat ordaintzeko ez denean). LPPE mendekotasunaren arretarako zerbitzu guztiekin **bateragarria da**, egoitza-zentroetako edo ostatu-zerbitzuetako egonaldi iraunkorrekin izan ezik. Egoitza-zerbitzu batean bi hilabete baino gehiagoko aldi baterako egonaldia egiten denean, laguntza aldi baterako etenda geratuko da egonaldia amaitu arte.

Zer baldintza bete behar ditut eskatzeko?

Mendekotasuna duen pertsonaren aldetik:

Mendetasuna duen pertsona gisa baloratua izatea, edozein gradutan.

Prestazioa zein Lurralde historikotako Foru-aldundiari eskatzen zaion, hango udalerriren batean erroldatuta egotea.

Espainiako nazionalitatea izatea edo Espainiako Estatuan legezko egoitza izatea (adingabeak izan ezik).

Behar diren zerbitzuak zehazteko eta laguntzaile pertsonalari horiek nola gauzatu behar diren azaltzeko gaitasuna izatea. Adingabeen kasuan eta hori egiteko gaitasun intelektualik ez dutenean izan ezik.

Hezkuntza- edo lan-jardueretarako edo eguneroko jardueretarako laguntzak behar izatea.

Laguntzaile pertsonalaren aldetik:

Adinez nagusia izatea.

Laguntza pertsonaleko zerbitzuak emateko behar den kualifikazioa egiaztatzea.

Zerbitzuak enpresa homologatu eta baimendu batekin kontratu bidez ematea, edo zuzenean lan-kontratu bidez, mendekotasuna duten pertsonari arreta emateko zerbitzua emateko.

Estatuan legezko egoitza izatea.

Estatuan legezko egoitza izatea.

Non eska dezaket prestazioa?

Zure auzo, udalerri edo eskualdeko **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan**.

Informazio gehiago:

- [Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa Araban](#)
- [Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa Bizkaian](#)
- [Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa Gipuzkoan](#)

[Kontsultatu informazio osoa](#)